



2021 EKO HEGO EUSKAL HERRIKO

LAN-ISTRIPUEI BURUZKO

TXOSTENA



Gora egin du lan-istripuen eta laneko gaixotasunen kopuruak lan-merkatu prekarizatu batean, COVID-19aren ondoriozko murrizketek markatuta.

68 HERIOTZA LANEAN

LAN-ISTRIPUAK HEGO EUSKAL HERRIAN

2020ko martxoan, COVID-19aren pandemiak aldaketak eragin zituen gure bizitzetan eta lan egiteko moduan. 2021ean egoera ez da hobetu eta murrizketak etengabeak izan dira, pertsonentzat funtsezkoak diren alderdi asko mugatuz, baita lan-munduan ere. EREak, ERTEak, mugikortasuna, QR kodeak, edukierak, maskarak... Murrizketa horiek guztiek oso ondorio kaltegarriak izan dituzte lan-eremuan, bai enpresentzat_ bai langileentzat.

Osasun-alertarekin batera, atzeraldi ekonomiko handia gauzatu da, eta enpresen edota lantokien itxierak, langileen kaleratzeak eta jarduera ekonomikoak txikitzea suposatu du. Jarduera ekonomikoaren geldialdi horren ondorioz, 2021a Hego Euskal Herrian % 9,9ko langabezia-tasarekin itxi zen (Iturria: Eustat/EPA).

Hala ere, 2020az geroztik lan gutxiago egiten ari garen arren, laneko ezbeharren kopuruak nabarmen egin du gora 2021ean. Hala, salatu behar dugu Hego Euskal Herriko istripu eta gaixotasun profesionalen datuek okerrera egin dutela modu kezagarrian, eta atzeraldi ekonomikoak are gehiago prekarizatu dituela lantokiak.

Administrazio publikoek emandako azken datu ofizialek erakusten dutenez, Hego Euskal Herrian laneko ezbehar-kopuruak gora egin du izugarri 2020. urtearekin alderatuta. EAEn, igoera % 10,2koa da, eta % 16,7ra igotzen da Nafarroaren kasuan. Istripu berrien (baja eragin dutenak eta ez dutenak), birgaixotzeen, istripu arinen, larri eta hilgarrien, in itinere istripuen, intzidentzia-indizeen eta lanbide-gaixotasunagatiko parteen jakinarazpenen guztizko kopuruak gora egin du. EAeko istripu hilgarriei dagokienez, datu ofizialek 35 lan-istripu hilgarri jasotzen dituzte, 31 lanaldian eta 4 in itinere, eta Nafarroan 13 istripu hilgarri, 5 lanaldian eta 8 in itinere. Ikus daitekeenez, aztertutako lurralde eta kontzeptu guztietan laneko ezbehar-tasaren igoera orokorra da.

EAEn 205 langilek izan dute lan-istripua 2021eko egun bakoitzean; Nafarroan, berriz, 30 izan dira. Aurreko urtearekin alderatuz, Bizkaian 3 istripu hilgarri gutxiago izan dira, aurreko urtean baino datu hobeak erregistratu diren lurralde bakarra. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan, aldiz, 5, 6 eta 2 gehiago izan dira, hurrenez hurren. Hala ere, euskal gehiengo sindikalak erregistratutako datuak nabarmen urruntzen dira datu ofizialek, eta egoera jasanezina islatzen dute, 2021ean lan-ezbeharrek okerrera egin zutelako nabarmen, 2020arekin alderatuta lan-istripuek eta/edo lanbide-gaixotasunek eragindako istripuen eta hildakoen kopurua handituz, nahiz eta pandemia-egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoan murrizketak izan, oraindik ere kontuan hartzen ditugulako ERTEak edo telelanaren azken hilabeteetako neurriak.

Laneko gaixotasunei dagokienez, estatistika ofizialetan dagoen azpierregeroia salatzen jarraitzen dugu; izan ere, Hego Euskal Herrian gutxienez 12 pertsona hil dira amianto-zuntzen esposizioarekin lotutako patologien ondorioz 2021ean (ASVIAMIE), baina erregistro ofizialek arazo larri horren errealitatea jaso gabe jarraitzen dute, gaur egun lan-jatorriko gaixotasunei dagokienez dagoen gutxiegitasunean sakonduz. Legebiltzarrean izapideak egin diren arren, oraindik ez da amiantoaren biktimentzako konpentsazio-funtsa ordaindu, eta kaltetuek oraindik ere beren kasuak epaitegietara bideratu behar dituzte. Halaber, ez dakigu pandemia hasi zenetik zenbat pertsona hil diren lanpostuan koronabirusa hartzeagatik.

Jarraian azalduko ditugun datuen larritasuna kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen barruan prebentziora bideratutako baliabideak oso urriak dira oraindik, datuen gordintasuna kontuan hartuta.

Datu OFIZIALAK EAEn (Iturria: Osalan)

2021ean, EAEn 74.646 lan-istripu, 73.133 istripu berri eta 1.513 berrerortze zenbatu dira guztira, hau da, 2020an baino % 10,2 gehiago. Istripu horietatik 36.364 baja izan dira, guztizkoaren % 48,7 eta aurreko urtean baino % 15,4 gehiago. Bajarik gabeko lan-istripuen kasuan, 38.282 dira, hau da, istripu guztien % 51,2, eta 2020an baino % 5,9 gehiago dira.

Baja eragin duten lan-istripu guztien artean, horien % 95, 34.606, arinak izan dira; 210, larriak; eta 35, hilgarriak. Datu horiek 2020arekin alderatuta, istripu arinak % 15,4 igo dira, istripu larriak % 7,1 eta hildakoak % 29,6. Datu absolutuetan, heriotza-istripuak 2020an baino 8 gehiago izan dira, orduan 27 hildako izan baitziren.

Lurraldeen arabera, Araban 6.551 lan-istripu erregistratu dira guztira, Bizkaian 17.333 eta Gipuzkoan 10.956, hau da, % 22,3ko, % 16,6ko eta % 14,1eko igoera, hurrenez hurren, aurreko urtearekin alderatuz. Istripu hilgarriei dagokienez, Araban 10 langile hil dira, Bizkaian 13 eta Gipuzkoan 12, lan-istripu baten ondorioz. 2020. urteari dagokionez, Bizkaia da hildakoen kopuru txikiena izan duen lurralde bakarra, aurreko urtean baino 3 gutxiago, eta Araban eta Gipuzkoan 5 eta 6 hildako gehiago izan dira, hurrenez hurren, bi lurraldeetan kopurua bikoiztuz.

Lan-istripuen intzidentzia-indizea (1.000 langileko lan-istripuen kopurua) % 14,7 igo da 2020. urtearekin alderatuta, eta Araba izan da gorakada handiena izan duen lurraldea, 37.2 punturekin. EAeko guztizkoa 33.66 da. Lanaldiko istripuei dagokienez, gizonak 2,5 aldiz istripu gehiago dituzte emakumeek baino, eta in itinere istripuen kasuan, emakumeek jasaten dituzte in itinere istripu arin gehien.

Nabarmentzekoa da, halaber, igoera orokorra, bai lanaldiko istripuetan_ bai in itinere istripuetan, hiru lurraldeetan. Azken horiek % 11,6 igo dira, eta bereziki igo arinak; aldiz, larriak eta hilgarriak pixka bat jaitsi dira.

Sektoreka, nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak % 4,4ko igoera izan dute lan-istripuetan, industrian % 8,5ekoa, eraikuntzan % 8,1ekoa eta zerbitzuen sektorean % 21,5ekoa.

EAEko istripu hilgarriak	2021	2020
Araba	10	5
Bizkaia	13	16
Gipuzkoa	12	6
OSOTARA	35	27

Gaixotasun profesionalei dagokienez, 2021ean EAEn laneko gaixotasunen 2.700 parte jakinarazi dira, aurreko urtean baino % 13 gehiago. Bajarik gabeko parteak % 50,2 dira, 2020an baino % 2,1 gehiago.

Baja eta bajarik gabeko gaixotasun profesionalen kopurua % 8,8 eta % 18 igo da, hurrenez hurren. 2021ean, mutualitateek 49,8 baja eman zituzten laneko gaixotasunen 100 kasuko. Erregistratutako gaixotasun profesionalen % 90 agente fisikoenak dira (2.417), eta 6 baino ez dira erregistratu agente kantzerigenoengatik. Horrek kapitulu honetan dagoen gutxiegitasunaren ideia ematen du. Lanbide-gaixotasunagatiko parteen kopuru handiagoa dago industriaren eta zerbitzuen sektoreetan, eta guztizkoaren % 37 emakumeei dagokie, eta % 62, berriz, gizonei. 2021ean, laneko gaixotasunen parteak % 18 igo dira emakumeen artean, 2020arekin alderatuta.

Datu OFIZIALAK NAFARROAN (Iturria: MITES)

Aurten, 2021ean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Ekonomiaren Institutuak ez ditu laneko ezbeharrei buruzko datuak argitaratu, eta, beraz, beste iturri batzuetan bilatu behar dugu, kasu honetan Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren (MITES) orrian. Ez dakigu zergatik erabaki duen Nafarroako Institutuak laneko ezbehar-tasari buruzko datuak eta txostenak argitaratzeari uztea, kontuan hartuta datu horiek oso garrantzitsuak direla irakurketa xehatua egiteko eta laneko ezbehar-tasa bezalako gai garrantzitsu batean ondorioak ateratzeko; eta hemendik berriro argitaratzeko eskatzen dizuegu.

MITESen argitaratutako datu ofizialak kontuan hartuta, baja eragin duten lan-istripuei soilik erreferentzia egiten dietenak, 2021ean 10.982 izan ziren, 9.925 lanaldian eta 1.057 in itinere. Istripu arinek 10.892 kasu biltzen dituzte, guztizkoaren % 99,1, larriak 77 eta hilgarriak 13. Industriaren sektorean izan dira lan-istripu gehien, guztizkoaren % 33. Aurreko urtearen aldean, % 16,7 igo da lan-istripuen kopuru osoa. Baja eragin duten istripu arinak % 16,75 gehitu dira, istripu larriak 7 eta hilgarriak 2, 11tik 13ra.

Nafarroako lan-istripuak	2021	2020
Arinak	10.892	9.329
Larriak	77	70
Hilgarriak	13	11
GUZTIRA	10.982	9.410

2021ean, intzidentzia-tasa (Nafarroaren kasuan, lan-istripuen kopurua 100.000 langileko) 3.488koa izan da, aurreko urtean baino % 13,5 handiagoa.

Gaixotasun profesionaleri dagokienez, Nafarroan gaixotasun profesionalen 1.276 parte jakinarazi dira urtarriletik abendura arte, hau da, 2020an baino % 5,45 gehiago. Baja gabeko gaixotasun profesionalak guztizkoaren % 55,7 dira, eta igoera eman da, aurreko urtearen aldean % 5. 2020an, mutualitateek 44 baja eman zituzten laneko gaixotasunengatik 100 kasuko (Iturria: CEPROSS).

COVID-19AREKIN LOTUTAKO LAN-ISTRIPUAK (Iturria: mugak)

2020an EAEn COVID-19arekin lotutako 177 lan-istripu zenbatu dira. 2021ean 477 kasu izan dira, % 169,5 gehiago. Haietako bat ere ez da hilgarria izan.

Nafarroan, 2020an 21 lan-istripu zenbatu ziren Covid-19agatik, eta 2021ean 68 kasu, % 224 gehiago. Ez dago hilgarri gisa erregistratuta. Datu horiek argi eta garbi islatzen dute estatistika ofizialetan dagoen gutxiagotzea, baita Covid-19aren eta laneko esposizioaren kasuan ere.

ONDORIOAK

Datu ofizialek erakusten dutenez, lan-ezbeharren datuetan gorakada nabarmena izan da 2021ean, aurreko urtearekin alderatuta, bai EAEn_ bai Nafarroan, nahiz eta COVID-19 egoera bizi dugun oraindik, eta kutsatzeak saihesteko murrizketek osasun-krisiak sortutako krisi ekonomikoan sakontzen duten neurri murriztaileak areagotzen dituzten. Hasieran azpimarratu dugun bezala, gora egin dute, guztira, istripu berriek, bajadun eta bajarik gabekoek, birgaixotzeek, istripu arinek, larriek eta hilgarriek, in itinere istripuen kopuruak, intzidentzia-tasek eta lanbide-gaixotasunengatikoko parteen jakinarazpen-kopuruak Hego Euskal Herri osoan.

2020arekin alderatuta, hobera egin duten datu bakarrak Bizkaian izandako istripu hilgarriak (3) eta lanaldian izandako in itinere istripu larri eta hilgarrien kopurua dira, oso arin jaitsi direnak, eta arinak, berriz, nabarmen igo direnak. Hala ere, istripuek gora egin dute lau lurraldeetan. Bereziki odoltsua izan da Araban eta Gipuzkoan hildakoen gorakada, % 100 igo baitira 2020arekin alderatuta. Era berean, Araban gertatu dira lan-istripu gehien, langile kopuruaren arabera.

Deigarria da Nafarroan in itinere istripu hilgarriak 8 izan direla, guztizkoaren % 61,5. 2020an Nafarroan ez zen in itinere istripu hilgarriarik zenbatu. Lanaldiko istripu hilgarriak 11tik 5era jaitsi dira. EAEn eta Nafarroan lan-istripuen intzidentzia-indizeak (lan-istripuen kopurua 1.000/100.000 langileko) lurralde guztietan igo dira, bai gizonetan_ bai emakumeetan eta sektore guztietan.

Laneko gaixotasunek ere gora egin dute 2020arekin alderatuta, bai EAEn_ bai Nafarroan, gizonetan eta emakumeetan.

Beste behin ere, enpresek, mutualitateek eta GSINek laneko patologia gutxi aitortzen dituztela salatzen dugu, ugazaben mutualitateen postulatuaren jarraipena egiten baitu. Hori, beste behin ere, onuragarria da patronalarentzat, eta oraindik ere asko erabiltzen da. Ondorioz, langileek osasun-egoera txarrean joan behar dute lanera, edo osasun-sistema publikora jo, eta azken horri bideratu behar diote gastua. Horrek esan nahi du, alde batetik, ez dagoela laneko ezbehar-tasari buruzko benetako estatistika ofizialik; izan ere, istripu asko ez dira lan-istripuztat hartzen edo arintzat jotzen dira, eta, batez ere, lan-jatorriko gaixotasun asko osasun-zerbitzu publikora bideratzen dituzte mutuek, jatorria lanpostuarekin zerikusirik ez duela argudiatuz. Eta, bestetik, gaixo dauden langileak behartzen ditu aitorten falta hori judizializatu behar izatera, prozesu judizial luze eta zailei aurre egin behar baitiete. Gainera, egiaztatzen ari gara GSINk gero eta gehiago berresten dituela mutualitateen jardunbide txarrak, eta erabateko babesgabetasunean uzten dituela langileak. Gauza bera nabarmendu dezakegu Covid-19arekin lotutako lan-istripuei buruzko datuei dagokienez. Ez dute islatzen bereziki osasun-sektorean eta sektore sozio-sanitarioan bizi izandakoa; izan ere, prebentzio-zerbitzuak eta mutualitateak trabak jarri dizkiete langile askori Covidek eragindako bajak lan-istripu gisa kalifikatzeko orduan.

Azken 6 urteetan EAEn eta Nafarroan izandako lan-istripu hilgarrien eta lanbide-gaixotasunen laburpen estatistikoa (Iturria: Osalan, ISPLN, MITES):

	<u>2016</u>		<u>2017</u>		<u>2018</u>		<u>2019</u>		<u>2020</u>		<u>2021</u>	
<u>Estadistika ofizialak</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>	<u>EAE</u>	<u>NAF.</u>
<u>Lan-istripu hilgarriak</u>	40	9	31	11	37	10	28	13	27	11	35	13
<u>Laneko gaixotasunak</u>	2471	1580	3101	1420	3278	1557	2931	1375	2390	1217	2700	1276

GEHIENGO SINDIKALAREN DATUAK

2021ean, gehiengo sindikalak gutxienez 68 lan-istripu hilgarri zenbatu ditu Hego Euskal Herrian, 48 EAEn eta 20 Nafarroan, hau da, % 2,8ko jaitsiera izan da 2020an erregistratutako datuekin alderatuta. Istripu hilgarri horietatik 22 Bizkaian gertatu dira, 16 Gipuzkoan, 10 Araban eta 20 Nafarroan. 2020. urteari dagokionez, Araban bereziki, Bizkaian eta Gipuzkoan 8, 2 eta 1 pertsona gutxiago hil dira, hurrenez hurren, eta gorakada handia izan da Nafarroan, hildakoen kopurua ia bikoiztu baita, 9 langile gehiago.

Lan-istripu hilgarriak	2021	2020	2019	2018	2017	2016
ARABA	10	18	6	6	5	3
GIPUZKOA	16	17	9	10	16	8
BIZKAIA	22	24	16	30	20	29
NAFARROA	20	11	15	21	14	13
GUZTIRA	68	70	46	67	55	53

Istripu hilgarrien motari buruzko xehetasun gehiago emanaz:

- % 26_ istripu hilgarri ez-traumatikoak dira.
- % 14_ istripu hilgarriak dira altueran erortzeagatik.
- % 22_ in itinere istripu hilgarriak dira.
- % 28_ istripu hilgarriak dira, harrapatze edo kolpe baten ondorioz.
- Istripua izan zuten pertsonen % 19 azpikontratatuak ziren.
- Hildakoen % 15,6 garraiolariak izan dira.
- Industria-sektorean izan dira lan-istripu hilgarri gehien (gutzizkoaren % 44), zerbitzuen sektorean (% 28) eta eraikuntzaren sektorean (% 11). Bereziki aipagarria da basogintza-sektorea, bertan 6 langile hil baitira 2021ean, gutzizkoaren % 13, enpleguaren % 2,2 baino ez dela kon-tuan hartuta, datu sinesgaitzak baitira.
- 6 baso-langile, arrantzale bat, nekazaritza-sektoreko langile bat eta 10 garraiolari hil dira. Gure estatistiketan erregistratuko ez ditugun arren, bi langile euskaldun hil zituzten Burkina Fason, kazetari lanetan ari zirela.

Iturri ofizialetako datuen eta gehiengo sindikalaren datuen konparazioa, laneko istripu hilgarriei dagokienez:

	2021		2020		2019	
	Iturri ofizialak	Gehiengo sindikala	Iturri ofizialak	Gehiengo sindikala	Iturri ofizialak	Gehiengo sindikala
Araba	10	10	5	18	6	6
Gipuzkoa	12	16	6	17	10	9
Bizkaia	13	22	16	24	12	16
Nafarroa	13	20	11	11	13	15
GUZTIRA	48	68	38	70	41	46

DATUEN IRAKURKETA

1. Murrizketek eta Covid-19ak eragindako egoerak lan-jardueran etengabe behera egin duten arren, lan-ezbeharren datuek gora egin dute eta aurreko urteko joera berari jarraitzen diote, eta guztiz onartezinak dira. Iturri ofizialen arabera, EAEn eta Nafarroan gora egin dute lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek. Gure estatistikek erakusten dutenez, aurreko urteko egoera oso antzekoa da, 2020. urteko 70 hildakoekin alderatuta 68 izan baitira. Kontuan hartuta osasun- eta ekonomia-krisia, jarduera-etenaldiekin eta sektore guztietako murrizketekin, datuak guztiz onartezinak dira.

Azpimarratu behar da hilkortasun-tasa gehien Nafarroan igo dela, lan-istripu hilgarriak ia bikoiztu baititu; Gipuzkoan izan da heriotza gutxien aurreko urtearen aldean. Bizkaiak eta Arabak ere hobekuntza txiki bat izan dute lan-istripuagatiko heriotzagatiko datuetan, 2020. urtearekin alderatuta, baina guztiak justifikaziorik gabe daude, kontuan hartuta lan-istripu horren arrazoa egiturazkoa eta aski ezaguna dela.

Hego Euskal Herriko lantokietako laneko segurtasun eta osasunak urtez urte hobera egiten ez duela salatzea. Enpleguaren kalitate txarra eta prekarietate-indize handiak dira arrazoi nagusiak. Azpikontratazioa, lan-erritmo handiak, baliabide teknikoetan eta giza baliabideetan inbertsiorik ez izatea edo informazio eta prestakuntza falta dira, besteak beste, laneko istripuen eta gaixotasunen atzean ezkututzen diren arrazoi nagusiak.

2. EAEn eta Nafarroan gertatzen diren laneko istripu eta gaixotasun asko estatistika ofizialetan erregistratu gabe egotea. Istripu hilgarrien kasuan, badago % 41,6ko azpierregrastroa gehiengo sindikalaren datuen eta 2021eko erregrastro ofizialen artean, eta horrek esan nahi du gertatutako 20 lan-istripu hilgarri ez direla halakotzat hartu, pentsatzekoa da istripu larri eta arinen kasuan ere antzeko azpierregrastroa egongo dela, eta, beraz, lan-istripu asko ez dira estatistika ofizialetan agertzen. Datu oso altuak izan arren, errealitatek oso urrun daude; izan ere, lehen esan dugun bezala, asko ez dira erregistratzen (istripu arinak, in-itinere, etxeko langileen istripuak...), eta beste batzuk enpresek eurek zuzenean edo mutualitateen laguntzarekin, trivializatu egiten dituzte, arin gisa kalifikatuz, edo ezkutatu egiten dira, eta gizarte-segurantzara bideratzen dira lanekoak ez diren istripu edo gaixotasun gisa, erregistratuak izan ez daitezten.

Laneko istripuak lesioaren larritasunaren arabera aztertzen dira, nahiz eta lesioari buruzko definizio legal edo teknikorik ez egon. Enpresen eta ugazaben mutualitateen esku geratzen da kalifikazioa, eta, horrela, istripuen % 99 baino gehiago arintzat jotzen dira, eta erdiak baino gehiago bazarrik gabeko istripuztat, bai EAEn_ bai Nafarroan.

Laneko gaixotasunen kasuan, gutxiegitasuna are ugariagoa eta odoltsuagoa da. Ezkutatzek zerikusi handia du baja horien ondorio diren planteamendu ekonomikoekin; izan ere, gaixotasun bat profesionaltzat hartzen den ala ez, tratamenduaren gastua eta horren ondoriozko prestazioak mutualitate batek edo osasun-sistema publikoak hartzen ditu bere gain. Ugazaben mutualitateek laneko patologien jatorria ukatzen badute eta osasun-sistema publikora bideratzen badituzte gaixotasun arrunt gisa, lanpostuan sortutako kalte guztiak guztion artean or-

daintzen ditugu, eta errentagarritasun ekonomikoa gailentzen da langileen osasunaren gainetik.

Bizitzen ari garen osasun- eta ekonomia-krisiak eragin zuzena du gure osasunean, ziurgabetasuna, ezegonkortasuna, langabezia, kaleratzeak, enpresen itxierak, aldi baterako lan-erregulazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, lan-baldintzen okertzea, soldaten murrizketa, lan-kargen bat-bateko aldaketak, etab. Horrek guztiak langileen osasuna kaltetzen du, batez ere osasun mentalari dagokionez, estresa areagotuz, eta, ondorioz, osasun-arazoak eta patologia larriak eragin ditzake, hala nola osasun fisikoa. Ikusten dugunez, bizi dugun ziurgabetasunak are gehiago larriagotu ditu langileen baldintza psikosozialak.

3. Kaltegarria da herri-administrazioek garraioaren sektoreari ematen dioten tratua, urteetan zehar lan-baldintza eta segurtasun-baldintza hobeak eskatzen baitituzte, hala nola atsedena ahalbidetzen duten lanaldi laburragoak, lan-karga gutxiago, errepideetako baldintzak hobetzea gaur egun oraindik puntu beltz askorekin, banaketetan lan-erritmo txikiagoak izatea. Gainera, kasu askotan, garraiolarien istripuak trafiko-istripu gisa kalifikatzen dira, lan-istripuak izan beharrean.
 4. Basogintzaren sektoreko lan-ezbeharren datuak ikusita, eta urtero hildakoak daudela ikusita, administrazioeiek eskatzen diegusektore horretarako plan estrategiko bat egin dezatela, lan egiteko baldintzak gogorrak direlako, arrisku oso handiak daudelako eta prebentzio-neurriak ez direlako nahikoak.
 5. Gasteizko eta Iruñeko gobernuek ez dituzte serio hartzeko moduan hartzen langileria-aren segurtasuna eta osasuna. Arlo horretako politiken norabidea ez da aldatu, eta dagoeneko frogatu da ez direla eraginkorrak eta ez direla nahikoak laneko ezbeharren gaitz soziala ezabatzeko. Lan-osasuneko gastu publikoa txiki egia da; beraz, EAEko eta Nafarroako aurrekontu osoaren % 0,01 baino ez da partida horretara bideratzen.
 6. Lan Ikuskaritzaren, Osalaren edo Nafarroako Institutuaren jardunaren epeak oso luzeak direla salatzen dugu, prebentzio-erloto kontrolerako eta jarraipenerako langilerik eta baliabiderik ez dagoela adierazten baitu. Ezinezkoa da prebentzioan enpresak betearaztea bitartekorik ez dagoelako iristen ez den edo berandu iristen den ikuskapen batekin. Langile gehiago behar dira.
 7. Laneko minbizien, amiantoarekin edo silikosiarekin lotutako kasuen kopuruak gora egiten jarraitzen du. 2021ean, gutxienez 12 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz. 1993tik gutxienez 2.398 pertsona hil dira Hego Euskal Herrian, langileak eta/edo haien emazteak, lanean amantoa arnasteagatik edo etxean laneko arropa garbitzeagatik. Tamalez, ez dira eta ez dira bakarrak izango.
 8. Bestalde, ez dakigu zenbat langile kutsatu eta hil diren koronabirusaren ondorioz lan-tokietan prebentzio eta babes faltagatik. Pandemian egiaztatu dugu prebentzio-zerbitzuak desagertu egin direla enpresetatik, prebentzio-beharrak premia-azkoak ziren une
-

batean, eta gomendio higienikoak eta kontingentzia-plan generikoak aukeratu dituzte.

Langileria aspaldidanik jasaten ari den lan- eta gizarte-eskubideen murrizketa larria, krisi-tes-tuinguru honetan larriagotzen ari dena, gure osasunarekin ordaintzeko prest ez gauden langi-leen segurtasunaren eta osasunaren aurkako eraso da. Bada garaia laneko osasun-politikak errotik aldatzeko eta osasuna eta bizitza gainerako guztiaren aurretik jartzeko.

**Egoeraren larritasuna ikusita, berretsi egiten ditugu EAEn eta Nafarroako gober-
nuei eskatzen dizkiegun neurriak:**

- Enpresen gaineko kontrola handiagoa. Lantokietan prebentzio-neurrien jarraipen egokia egi-teko, ezinbestekoa da Osalan/ISPLNko eta Lan Ikuskaritzako langileak gehitzea, Europako ba-
tez bestekoarekin parekatuz. Praktikan, horrek esan nahi du teknikarien kopurua gutxienez
100 gehiago izango dela EAEn, eta 50 gehiago Nafarroan. Era berean, Nafarroako Gobernuak
Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arloko eskumenak berreskuratu behar ditu.
- Mutualitateak eta prebentzio-zerbitzuak publiko egitea. Ez dira eraginkorrak osasunaren eta
prebentzioaren ikuspegitik.
- Kontrol eta jarraipen ekintza gehiago egitea, altueran erortzeko, harrapatzeko edo agente
kantzerigeno eta mutagenoekin lan egiteko arriskua duten jarduerak barne hartzen dituzten
enpresetan araudia betetzen dela egiaztatzeko.
- Prebentzio-arloan zehatutako enpresak kontratatzeko debekua.
- Hego Euskal Herriko enpresa guztietan arrisku psikosozialeko ebaluazioak egiteko eskatzea,
pandemiak eta sortu den ziurgabetasun-egoerak langileen baldintza psikosozialak are gehiago
larriagotu dituela kontuan hartuta. Horretarako, bi urteko epean, enpresa guztiek arrisku psi-
kosozialen ebaluazio bat izan beharko dute gutxienez, eta gabeziak daudenean neurriak ezarri
beharko dituzte. Gainera, Osalan/ISPLNko langileek egingo dute betetze-mailaren jarraipena.
- Enpresei eta aldundiei mugikortasun iraunkorreko plan bat eskatzea, errepideen egoera ho-
betzeko eta istripu asko eragiten dituzten puntu beltzak ezabatzeko, azken urteetan modu
kezkaigarrian areagotzen ari diren in_ itinere istripuak ezabatzeko edo, hala badagokio, gutxit-
zeko.

#PrekarietateaHiltzailea

